

NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA BATZAR OROKORRA

2025eko otsailaren 19an arratsaldeko 18:30etan Leitzako Udaletxeko Batzar Aretoan, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Batzar Orokorra bildu da, Aintzane Arraiza Nafarroko Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakaritzapean.

BERTARATUAK

Bitorio Lizartza Leitzako udaleko ordezkaria

Iñaki Zabalo, Leitzako udaleko ordezkaria

Joseba Altzelluts Larraungo udaleko ordezkaria

Igor Otermin , Beteluko udaleko ordezkaria

Ekaitz Astiz Ultzamako udaleko ordezkaria

Izaskun Anduaga, Ultzamako udaleko ordezkaria

Juan M^a Irastorza, Lekunberriko udaleko ordezkaria

Julen Beunza, Basaburuko udaleko ordezkaria

Patxi Xabier Iturriotz, Imotzko udaleko ordezkaria

IDAZKARIA: Lucia Beloqui Iriarte.

GAI ZERRENDAA

1.- Azken batzarreko akta onartzea.

Lehendakariak aipatzen du deialdiarekin batera ez zela aurreko batzarreko akta bidali, 2024ko azaroaren 21eko batzarrarena. Idazkariak gaien errepasoa egiten du eta bildutakoek aho batez onartzen dute azaroaren 21eko akta.

2.- 2023ko kontuak. Behin betiko onespena.

Lehendakariak aipatzen du azaroaren 21ean jada onartu zirela hasiera batez kontuak. Emaizta honakoa da onartutako gastuak osotara 338.979,90 eurokoak dira eta aldiz sarrerak 351.167,27 eurokoak, hortaz urteko emaitza, gastu eta sarreren arteko diferentzia 12.187,47 eurokoa.

Tesoreria gerakina ere positiboa da 80.101,99 eurokotan.

1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 273 artikularen arabera kontuak onartu ondoren espedienteak mankomunitatea osatzen duten udaletako tabloian egon da eskuragarri , 15 eguneko epean. Epe horretan ez direnez alegazioak aurkeztu

mankomunitateak behin betiko onespina ematen die 2023ko kontuei eta hortaz bildutakoek aho batez onartzen dituzte 2023k kontuak gastuak osotara 339.979,90 eurokoak direlarik, urteko emaitza 12.187,47 eurokoa eta tesoreria gerakina 80.101.99 eurokoa.

3.- 2025. urteko aurrekontua. Behin betiko onespina.

Lehendakariak azaltzen du aurreko batzarrean ere onartu zela hasiera batez aurrekontua. Urteko aurreikuspenak kontutan hartuta erabaki zela Ultzamaldeko euskara teknikariaren jubilazioa %100ean ordezkatzeari, 386.752 eurokoak izatea onartu ziren.

1990/6 Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 270. eta hurrengo artikuluetan zehazten dena, jarraituz erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urtarrilaren 9an, eta 15 eguneko epean jende aurrean egon ondoren ez dira alegazioak aurkeztu hortaz behin betiko onespina eman ahal zaio aurrekontuari, hortaz eta aho batez, bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Behin betikoz onartu 2025. Urteko aurrekontua, 386.752 euroko aurreikuspenarekin. Hasierako erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzea aurrekontua modu xehetuan argitaratua izan dadin.

4.- 2024. Urteko aurrekontu aldaketa. Behin betiko onespina.

Lehendakariak azaltzen du bi aurrekontu aldaketa onartu zirela ere aurreko batzordean, lehena Leitzaldeko eskualdearen kasuan, alde batetik Auzolagun programaren ordainketa osatzeko 3475 euroko soberakina behar zelako eta bestetik Letrak kalera argitalpenerako 845 euro. Bi gastu hauei aurre egiteko tesoreria gerakina erabiliko zela erabaki zuten eskualdeko ordezkariak. Eskualdean adostutako erabakia izan zen bi programen gastuei aurre egiteko modu honetan jokatzeari, hots gastu osoa eskualdeak hartzea bere gain eta gain kostuari tesoreria gerakinarekin aurre egitea.

Bestetik Ultzamaldeko eskualdean aurrekontu aldaketa bi partidekin dauka lotura, udalekuen dirulaguntzaren partidarekin, aurreikuspena 1600 eurotik 2662 euroko gastura pasatu delako eta bestetik eskolako joko dinamizatzaileren gastua 2000 eurotik 2700 eurora pasa delako. Tesoreria gerakina izanik, eskualdeko ordezkariak berau erabiltzea aurrekontu aldaketa hau gauzatzeko erabaki zuten eta hortaz mankomunitari luzatzen dizkiote proposamen biak onartzeko.

1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioaren Foru Legearen 270. Artikulua jarraituz hasiera batez onartu ondoren 15 eguneko jende aurreko epean alegaziorik dituzte bildutakoek eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute 15 eguneko alegazio epean egon daitezen bi espedienteak.

5- Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Ez dago alkate ebazpenik.

6- Oharrak eta berriemateak.

Lehendakariak adierazten du ez duela berririk emateko.

Bai Ultzamako eskualdeko ordezkaria den Ekaitz Astizek, honek adierazten du, euskara teknikari berriarekin elkarriketa izan zuela eta adierazi ziola haren laneko jardunaldi haundia itzulpenak egiten pasatzen zuela eta nahiz eta uste lanpostuaren betekizunetan bat hori zela, ez hainbesteko karga izatea egunerokotasunean. Horrengatik beste ordezkarietara galdera luzatzen die, ea badakiten haien eskualdeko teknikariak halako lanik egiten duten Horren erantzun bezala Aintzane Arraizak adierazten du Leitzaldeko teknikariak aipatu diola berak puntualki egiten dituela horrelako lanak eta Lekunberriko ordezkaria den Juan M^a Irastorzak modu berean ematen du erantzuna.

Itzulpen lanak egitea euskararen normalizazioan lanak atzeratzeak ekar lezakeela adierazten dute bildutakoek. Horrengatik guztiagatik Ultzamaldeko ordezkarietara haien euskara teknikarietara bilera egingo dute hau guztia argitzeko.

7.- Eskariak eta galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 19:35 direnean bilera amaitutzat ematen du lehendakariak, eta idazkariak hala ziurtatzen du.